



2023
garabide
एएडएपीए
*lankidetzan
hizkuntzak biziberritzen*

AURKIBIDEA

1- Garabideren aurkezpena	4
2- Aitzinsolasa	6
3- Txema goguen	7
4- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala	8
4.1.- Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlana	9
5.- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza	10
5.1.- Hizkuntzak Biziberritzeko I. Formazio Programa: Maleta bete euskalgintza	11
5.2.- Imbaburako kitxuak eta euskalgintza sareak ehuntzen	12
5.3.- Nasa Yuwe hizkuntza biziberritzeko plana, metodologietatik aplikaziora	13
5.4.- Kaqchikel komunitateak eskola behar du, kaqchikel eskolek komunitatea	14
5.5.- Mapuzugunaren murgiltze eredia sortzen	15
5.6.- Argi izpiak Yucatango penintsulako hizkuntza plan estrategikoan	16
5.7.- Rifeko gazteak Euskal Herrian	17
5.8.- Ketzua biziberritzeko online formazioa hezkuntza eremutik	18
5.9.- Astebetez, guaraniaren plana martxan jartzeko prestaketan	19
6.- Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian	20
6.1- Errenteria: Hizkuntza aniztasuna gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako	21
6.2.- Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan	22
6.3.- Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?	24
7.- 2023eko balantzea	25
7.1.- Egitura	26
7.2.- Balantze ekonomikoa	27
8- Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak	28
8.1.- Erakunde babesleak	28
8.2.- Erakunde laguntzaileak	29

GARABIDE:

lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide irabazi asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundea eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugun baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.



ZER?

Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria

Euskal Herriak munduarekin partekatze duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrietako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, komunitate edo gizarte **baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala
- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza
- Hirugarren lerro estrategikoa: gizarte aktibazioa Euskal Herrian

2 ZERGATIK?

Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako

UNESCOren arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiararen alde **gizartea antolatu dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasagarriak** izan daitezzen.

3 NOLA?

Esperientzia trukearen bidez

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarrik hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahalduz (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagoak elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

4 NOREKIN?

Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bidegarriak izan daitezzen **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**. Horregatik, nazioarteko hizkuntza lankidetzaren muina **hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten elkarte, erakunde eta hizkuntza aktibistak** dira. Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitaterekin ari da hizkuntza lankidetzan (mapan adierazi: kurduak, amazighak, maputxeak, guaraniak, aimarak, nasak, kitxuak, kaqchikelak, k'icheak, yukatango maiak eta nawatak) eta Euskal Herrian ere hamaika dira Garabideren laguntzaile eta babesleak. Izan ere, zubigintzan aritzen gara euskalgintza eta munduko bestelako biziberritze prozesuak aurrera eramaten ari diren eragileak elkarren artean lotzeko eta hizkuntzen biziberritzean aurrera egiteko elkarri heldulekuak eskaintzeko.

5 NON?

Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zaballean, **euskalgintzaren nazioartekotzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibizazioa tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatuzko, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Munduko Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkada izendatu zuen 2022tik 2032ra bitarteko aldia. Izan ere, mende honen bukaerarako, munduan dauden 6.000 bat hizkuntzetatik erdia desagertzeko arriskuan daude; hau da, guztiona den kultura-ondare zati handi bat galtzeko arriskuan legoke.

Izendapen horrekin jatorrizko hizkuntza askoren egoera zailarentzako arreta erakarri nahi izan da, hizkuntza horiek guk guztiok zaindu, biziberritu eta sustatzeko ahaleginak egin eta baliabideak jar ditzagun.

Horretan dabil Garabide buru-belarri eta, horrexegatik, EHUKo Udako Ikastaroetan jardunaldi bat antolatu zuen 2023ko uztailean. Horren asmoa zen, galdera mamitsu batzuentzat, erantzun egokiak bilatzea. Nola egin aurre hizkuntza gutxituen galerari? Zergatik eta zertarako suspertu hizkuntza gutxituak mundu globalizatuan?... Azken buruan, bilatu eta partekatu nahi ziren hizkuntzen defentsan erabil litezkeen argudioak edota kontakizunak.

Izan ere, badira unibertsalak diren arrazoiak, adibidez UNESCOk emandakoak. Baina, baita lekuan lekukoak ere, egoera eta premia jakinei erantzun behar dienak.

Horrexegatik, esandako ikastaroan Ipar eta Hego Euskal Herriko lekukoek ez ezik, beste zenbait hizkuntza-komunitatek ere izan zuten ahotsa: amazigek, nasek, quechuek, maiek... Askotariko ikuspegitik aztertu nahi izan zen hizkuntza gutxituak suspertzeko gakoak.

Hori da, hain zuzen ere, hizkuntza-altxorraren zaintzan Garabidek aurten beren-beregi jarri nahi izan duen aletxo.

Abuztuan utzi gintuen Txema lagun eta lankideari



Bihotz gordea izan duk, Txema asko, dena agertzeko izan diagu gure zortea apur bat ezagutzeko bihotz zolia, zoliegia arrotzetik urruntzeko bihotz biguna, bigunegia minak samur gainditzeko bihotz handia, handiegia zedarran gelditzeko. Herriko eta etxeko seneko eta hitzeko bihotz zabala, zabalegia herioan kabitzeko bihotz maitea, maiteegia guk betiko agurtzeko.

**(DOINUA: BEDERATZIKO HANDIA.
“NERE GORPUTZA DARDARKA DAUKAT”)**

GARABIDEko lantaldea eta zuzendaritza batzordea

1. Ierro estrategikoa

*FINKATZE
INSTITUZIONALA*

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN ELKARLANA



DIRU LAGUNTZA, HIZKUNTZA LANKIDETZAREN INGURUKO DOKTOREGO TESIETARAKO

Garabidek eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarlanean hitzartu dute laguntza ekonomikoa ematea hizkuntza lankidetzaren inguruko doktorego tesiei. Hitzarmen horretan, 9.000 euroko laguntza ematea erabaki da hizkuntza lankidetzaren inguruko tesietarako. Diru horrekin lagunduko den lehendabiziko doktorego tesia Viviana Gonzalez kolonbiarrarena izango da, zehazki, Kolonbian, Caucaiko eskualdean, nasa yuwe hizkuntza biziberritzeko lanean,

hizkuntza lankidetzak izan duen garrantzia neurtu nahi da. Diru laguntza hau hego globaleko komunitate linguistikoetako kideei emango zaie, eta urtero tesi lan berri bat saritu nahi da.

BIDEO FORMATZAILEAK, EUSKARAREN IBILBIDEKO GAKOAK AZALTZEKO

Hauxe da Foru Aldundiarekin hasitako elkarlanaren bigarren zangoa: oinarritzko bideo formatzaileak euskararen ibilbideko gakoak azaltzeko. Garabide sortu zenetik modu askotako formazioak eskaini ditu euskararen biziberritzearen berri emateko, eta oinarritzko eduki horiek bilduko dituen

ikus-entzunezkoak ekoiztea erabaki du, 15 minutu ingurukoak, interesa duen edozeinen eskura egon daitezzen. 2023ko laguntza bideo hauek ekoizteko izango da:

1. Euskararen biziberritzearen gakoak: hizkuntza biziberritzeko oinarritzko matrizea.
2. Euskararen ibilbidearen ikuspuntutik, hizkuntzak biziberritzeko alor nagusietako ohiko problematika eta galdegaiak.
3. Hizkuntzak biziberritzeko eragileen mapa eta funtzioak.
4. Euskararen matritzetik abiatuta, jatorritzko hiztun komunitate minorizatuen argazki robota: mehatxu, ahulgune eta aukerak.

2. Ierro estrategikoa

*FORMAZIOA ETA
AHOLKULARITZA*



Hizkuntzak Biziberritzeko I. Formazio Programa: **MALETA BETE EUSKALGINTZA**

Esperientzia ahaztezin eta eraldatzailea izan da. Ezagutza eta emozioz betea, inspiratzailea. Esperientzia truke ederra. Ikastaldi etengabea. Egia bihurtutako ametsa. Horrela definitu dute partaideek bereziki “Aditu” legez ezagutu eta aurten *Hizkuntzak Biziberritzeko I. Formazio Programa* izena hartu duena.

Programa honek euskararen biziberritze ibilbidea transmititzea du helburu, urtero 15-20 hizkuntza-aktibista hizkuntza biziberritzeko estrategietan formatzea, hain zuzen ere.

Helmuga horren bidean, hainbat urrats egin ditugu 2023an bi aldi nagusitan. Lehenengo aldia online egin genuen, uztail-abuztuan, 6 astez, eta bertan hizkuntzak biziberritzeko oinarriak, Abya Yalako hizkuntza gutxituen erretratua, eta hizkuntza biziberritzeen esperientzia eredugarri zenbait landu genituen. Aldi honetako formazioan 19 hizkuntza aktibistak parte hartu zuten.

Bigarren aldia Euskal Herrian garatu da, urri-azaroan, beste 6 astez. Aurreko programen formatuak fusionatuz, aldi honetan formazio saio teorikoak, bisita didaktikoak, praktika zein proiektu aldiak, eta sentsibilizazio saioak uztartu ditugu. Bertan 11 komunitate linguistikotako 15 kide izan dira gurekin:

- Amazig 1 (Rif-Maroko)
- Bubi 1 (Ekuatore Ginea)
- Guarani 1 (Argentina)
- Haitiko kreoleradun 1 (Haiti)
- 2 Kaqchikel (Guatemala)
- Ketxua 1 (Bolivia)
- 2 kitxua (Ekuador)
- 2 maputxe (Walmapu)
- Nahuat 1 (Mexiko)
- 2 nasa yuwe (Kolonbia)
- Yukatango maya 1 (Mexiko)

Honekin lotuta, hizkuntza aktibistei euren herrialdeetatik irten eta Euskal Herrira etortzeko ipintzen dizkieten oztopoak salatu nahi ditugu. Programa honen kasuan, 4 izan dira bisa edo pasaporte eskuratu ez, eta formazioarekin jarraitu ezin izan duten aktibistak.

Hizkuntza aktibistek Euskal Herrian egindako lehen 4 asteetan zehar, lehenago aurreratu bezala, batetik, online hasitako formazioa osatzeko saio teorikoak jaso dituzte Aretxabaletan honako arlo hauen ganean: soziolinguistikaren oinarriak, hizkuntzak biziberritzeko lan esparruak, eta hizkuntzen biziberritze prozesuak. Bestetik, Euskal Herrian barrena ibili dira, euskararen biziberritzean gakoak izandako erakunde, elkarte, eragile, komunika-

bide, ikastetxe eta abarrak ezagutzeko bisitak eginez. Horretaz gain, 5. astean zehar partaide bakoitzak praktikaldi bat egin du bere intereseko arloan. Eta hau izan dute, kasu gehienetan, aste horretan hasi eta azken astean aurkeztu duten proiektua osatzeko lagungarri. Aldi berean, aktibistek euskal jendartearen ere eragiteko, sentsibilizazio saio zenbait garatu dira, hainbat eskola eta herritan.

Guztiarekin ere, lana gogor egiteaz batera, gozatzeko aukera ere izan dugu. Elkarren esperientziak adituz emozionatu gara. Irri egin dugu eta baita negar ere. Kantuan egin dugu eta baita dantzan ere. Nafarroa Oinezaren Beriainen magalean, alboka doinuekin Aretxabaletako udaletxean, Degurixako bordako sutondoan zein Larriñoko sukaldean, Donostian itsasoari begira urertzean, eta hizkuntza gutxitudun ororena bihurtu zen Gure Zirkuaren barrenean. Bertan Poxpolo pailazoak aldarrikatu zuen hizkuntza txikituei imaginazioa eta ilusioa gehituz, gauza handiak egin daitezkeela. Eta horrelako zerbait da agian, programa honetako kideek Euskal Herriko euren hizkuntzentzat daramaten hori: maleta bete euskalgintza.

IMBABURAKO KITXUAK ETA EUSKALGINTZA SAREAK EHUNTZEN

Azpimarratzekoa da euskalgintzako hainbat eragilek eta Imbaburako kitxuek aurten ehundu duten sarea. Biziberritzeko prozesua taldean egin behar da, edo ez da.

Aurten hizkuntzak biziberritzeko diplomaturaren beste edizio bat egin dugu AJKI eta SISARIY elkarteekin elkarlanean. Imbaburako 40 ekintzaile kitxuak jaso dute formazioa uztaile eta urria artean garatu den atal prezentezalean, eta hainbat irakasleren partaidetza izan du, tartean kitxuak, Abya Yalako beste jatorrizko herri batzuetakoak eta euskaldunak. Euskal Herriko irakasleen aldetik, oso talde kualifikatua aritu da Imbaburan aurrez aurreko saioak ematen: Iñaki Arruti, Kontxi Berrio-Otxoa, Urko Kolomo, Eli Trojaola, Juanjo Perez, Esti Nieva, Joseba Irazabal, Andoni Barreña, June Furundarena eta Aimar Gutierrez.

Formazioaren helburu nagusia da ekintzaile berriak gehitzea dagoeneko martxan dauden biziberritze-ekimenean. Izan ere, diplomaturaren edizio



hau garatu bitartean, aurreko aldietan sortutako biziberritze-lantaldeek lanean jarraitu dute, AJKI, SISARIY eta Euskal Herriko aholkularien laguntzarekin. Azpimarratzekoa da, horretarako, proiektu honetan euskalgintzako hainbat elkarte ematen duten laguntza, batez ere Elhuyarrek, AEK-k, Kukulaisik, Aiaraldea Ekintzen Faktoriak eta Basabeazpi Ikastolak.

Azkenik, kitxua lagunek lan handia egin dute inzidentzia politikoaren ar-

loan, biziberritze prozesuak beharrezko babesa lor dezan Imbaburako prefekturan eta tokiko erakundeetan. Horretarako, administrazio publikoan eragiten dabiren lantalde espezializatuaren lanaz gain, topaketak eta batzarrak egin dituzte 2023ko hauteskundeetako hautagaiekin lehenengo, eta hautatuekin gero. Arnas luzekoa da lan ildo hau, biziberritze-prozesua bera bezala, baina lehenengo fruituak ematen dabilela esan genezake. Horren adierazgarri da, esaterako, Imbaburako prefekturak kitxuaren erabilera ofizialari bide eman izana batzarretan eta idatzi ofizialetan, eta horretarako formazioa eskatu izana itzulpengitza eta interpretazio arloan. Garabideko boluntario Lurdes Auzmendik formazioa abiatu du, urtearen amaieran, behar jakin horri erantzuten laguntzeko.





NASA YUWE HIZKUNTZA BIZIBERRITZEKO PLANA, METODOLOGIETATIK APLIKAZIORA

Nasak gero eta biziberritze-prozesu interesgarriagoa garatzen dabilta Toribio udalerrian, hurrengo pausuak ematen asmatuz gero, erreferentziazkoa izan daitekeena nasa lurralde osoan eta kontinenteko beste komunitateentzat.

2023a ere urte emankorra izan da Nasa Yuwe Hizkuntza Biziberritzeko Hizkuntza-Planarentzat, eta Euskal Herriko irakasleek formazioa eta aholkularitza ematen jarraitu dute Caucako hizkuntza-sustatzaileei. Biziberritze-lantaldeetan emandako aurrerapausoei dagokionez, azpimarratzekoa da hiru eskolatan esperientzia pilotuak jarri direla martxan, lehen hezkuntzako lehenengo mailan murgiltze eredu ezartzeko. Helduen hezkuntzan eta alfabetatzean, diplomatura bana egin da, sortutako metodologiak erabiltzen irakasteko eta 2024aren hasieran helduen nasa yuwe eskolak martxan jartzeko. Horrez gain, lantalde berri bat jarri da martxan, hizkuntza eta generoa izenekoa, nasa emakumeak biziberritze prozesuan engaitezko eta historikoki kulturaren transmisioan izan duten rola ikusarazteko.

Bestalde, hainbat ekimen garatu dira Toribioko esperientzia gainerako nasa lurraldeetara hedatzen laguntzeko. Batetik, ekainean hizkuntza-foro bat egin zen, Caucako ehundaka hizkuntza-ekintzaileen partaidetzarekin. Haiekin batera, Garabideko Andoni Barreñak eta Imbaburako kitxuen delegazio batek ere parte hartu zuen foroan. Gainera, nasekin biziberritze-esperientziak trukatzeko baliatu zuten egonaldia kitxuek. Bestetik, urtean zehar harremana izan dugu ACIN eta CRIC erakundeekin (Cauca iparraldeko eta Cauca osoko erakunde indigenen kontseiluak, hurrenez hurren). Harreman horri esker, Arkaitz Zarragak, Lurdes Auzmendik eta Andoni Barreñak saioak eman dituzte CRICek antolatutako formazioetan, eta CRICeko hizkuntza arduradunek Toribion emandako formazioetan parte hartu dute. Amaitzeko, aipatzekoa da biziberritze-planak hiru urtetarako hitzarmena lortu duela AECID Espainiako kooperazio agentziarekin, Garabideren bitartekaritza.



KAQCHIKEL KOMUNITATEAK ESKOLA BEHAR DU, KAQCHIKEL ESKOLEK KOMUNITATEA

Azken urteetan aurrerapauso handiak eman dituzte Ruk'u'x Qatinamit sareko eskolek, baina, hemen ere argi ikusi dugun bezala, beharrezkoa da biziberritze-esperientzia eskola gehiagotara eta eskolatik kanpo zabaltzea.



2023an, Ruk'u'x Qatinamit eskola kaqchikelen sareari materialgintza lanetan laguntzen jarraitu dugu. Sareko eskoletako bat izan da aitzindaria murgiltze ereduaz ezartzen, eta iaz amaitu zuen batxillergo murgiltze ereduko lehenengo promozioak. Urteotan, material asko egin dute ikasgai eta ikasurte guztiak kaqchikelez emateko. Hala ere, oraindik zailtasunak dituzte gai teknikoak kaqchikelez emateko, eta behar horri erantzutea izan da aurtengo materialgintza lanaren helburu nagusia. Horregatik, natur zientziak kaqchikelez emateko materialak sortzen aritu dira sareko eskolak. Zehazki,

haur hezkuntzan natur zientzietako gaiak lantzeko 40 unitate sortu dituzte, lotutako material osagarri guztiekin: irakasleen gidak, bideoak, ariketak, esperimentaziorako jarduerak...

Horrez gain, bi lankidetzak bidaia egin ditugu urtean zehar. Alde batetik, Neus Alenya Kataluniako irakasleak hiru hilabete eman ditu Chimaltenangoko eskola batean. Egonaldian, ingeles klaseak ematen lagundu du, hizkuntzak irakasteko metodologiengandik inguruko formazioak eman ditu, eta hango biziberritze prozesuaren inguruko beste ikuspegi bat eskaini digu. Beste alde batetik, Joanes Igeregi lan-

talde teknikoko kidea ere Guatemalan izan da, eskolen prozesuari jarraipena egin eta ekimen zabalago bati heltzeko aukerak aztertzen. Eskoletan garrantzi handia izanik ere, hainbat erronka daude kaqchikela biziberritzeko: murgiltze eredu eskola gehiagotara zabaltzea, eskolatik kanpo hizkuntza erabiltzeko espazioak sortzea, adin guztietako kaqchikelentzako funtzioak irabaztea... Ez dira nolana hiko erronkak, baina aukerak ere badaude, kaqchikelek martxan dituzten biziberritze ekimen ugariak indartu eta artikulatzen asmatuz gero.



MAPUZUGUNAREN *murgiltze* *eredua* sortzen

Mapuzugunez soilik funtzionatzen duten bi guneren irekierarekin borobildu da urtea maputxeen lurretan.

Urte oparoa izan da 2023a Wallmapuko lurretan. Begirada atzera botaz gero helduen alfabetatze eta irakaskuntzan erreferente ziren maputxeak, eta hori izateari utzi ez dioten arren haurrentzako murgiltze eredu gu-
neak sortzeari ere ekin diote bi komuna ezberdinetan.

Urtearen hasieran Puerto Saavedra-ko udaleko kulturantzaren departamentuak bultzatuta Wallmapuko lehen murgiltze eredu gu-
nea sortu zen. Komunitateko 2 eta 5 urte bitarteko 8 haurrentzako lekua duen espazioa

bideratu zen horretarako, berez eskolaz kanpoko ekintzetarako prestatua zegoena jardunaldi erdiz haurreskola moduan erabiltzen hasi ziren, eta emaitza onak ematen gainera. 2024rako espazio handiago bat irekitzekotan dira, eta inguruko beste bi komunitateetan ere gune bana zabaltzeko asmoa dago.

Puerto Saavedrako ez da izan murgiltze eredu esperientzia bakarra. Garabideren aspaldiko laguna den Mapuzuguletuañ elkarteak ere hirigunean, Temucon bertan, aurretik eskola izandako etxe bat alokatu eta hiriko

haurrentzako murgiltze eredu gu-
nea ireki zuen maiatza inguruan. 2 eta 5 urte bitarteko dozena erdi ume inguru elkartzen dira bertan egunero, hizkuntza baten biziberritzean horren garrantzitsua den familiako transmisioari ir-
tenbide bat edo bultzada bat emanez.

Espazio hauen irekierarekin mapuzuguna orain arte iritsi gabeko gu-
neetara eramatea lortu da, hizkuntza umei ere transmititzeko duen garrantzia agerian utziz eta hezkuntzak bizi-
berritze prozesuan duen garrantziari balioa emanez.

ARGI IZPIAK Yucatan penintsulako hizkuntza plan estrategikoan

Euskararen biziberritze prozesuan oinarritutako saretze lana abiatu du Yuyuum elkarteak.



Orain arteko martxarik ez da sekula egon Yucatan penintsulan hizkuntza biziberritzeari dagokionez. Tokian tokian lanean ari ziren elkarte txikiak beti existitu dira, baina orain bezala koordinaturik eta antolaturik inoiz ez dira egon. Yuyuum elkarteak hori baitu helburu, penintsula osorako balioko duen hizkuntza biziberritzeko estrategia bat sortu eta Yucatan maiaren biziberritzean aurrerapausoak ematen jarraitzea.

Kellog Fundazioaren bidez lortutako diru laguntzari esker, hizkuntza bat biziberritzeko ulertzen diren 9 arlotan ereile espezifikoak identifikatu eta aktibatu dira. Ereile horiek, bakoitzak bere alorrean, hizkuntza plan baterako oinarriak proposatuko dituzte, eta denen artean Yucatan lehen hizkuntza plan estrategikoa osatuko dute. Horretarako hizkuntzen biziberritza-



ren inguruko on line formazioa jaso dute urtean zehar, eta urte amaieran ordura arte landutakoa konpartitzeko eta elkarren artean osatzeko arloz arloko 9 foro egin dituzte. 2024aren erdialdean egingo da lehen plan honen aurkezpena.

Meridako Udalak ibilbide independentea egitea erabaki duen arren, ez

zuen hizkuntza biziberritzeko mugimendu honetatik at geratu nahi, eta udalerako eta hirirako hizkuntza plana sortzen ari dira.

Pausu txiki baina sendoak emanaz Yucatan maiaren biziberritze plana aurrera doa, eta etorkizunera begira ere argi izpiak ikusten dira lehen gau beltza baino ikusten ez zen tokian.



RIFEKO GAZTEAK Euskal Herrian

Amazig hizkuntzaren alde lanean ari diren gazteak Ipar eta Hego Euskal Herria ezagutu zuten irailan, Garabide eta Plazara elkarteek gonbidatuta.

«Gure hizkuntza ikusarazten dugu, bizi gara, ikasten ari gara eta Euskal Herrian elkar ezagutzen dugu», esanez bukatu zuten Garabide elkarteak eta Plazara elkarteak elkarrekin antolatu genuen formakuntzan parte hartu zuten riftarrek.

Prestakuntza hau irailaren 11tik 18ra egin dugu Euskal Herrian barrena, hizkuntza biziberritzeko hainbat arlotan lan egiten duten bost partaide riftarrekin: aktore bat, itzultzaile bat, kantari bat, kazetari bat eta tarifit hizkuntzaren irakasle bat. Amets eta ikuspegi komuna duten bost eragile estratejiko: izaten jarraitzea eta tarifitean bizitzea.

Helburu horrekin, gure lurraldearen bisita egin zuten, eta Ipar Euskal Herrian egin zuten egonaldien zatirik handiena, bertako Plazara kooperatibarekin elkarlanean prestatu zuena Garabidek. Iparraldeko euskara biziberritzeko esperientzia inspiratzaile eta egingarriak ezagutzeko aukera izan zuten: hezkuntza, helduen

alfabetatzea, komunikabideak, administrazioa, itzulpena, gizarte-aktibazioa, berrikuntza... riftar gazteengan eragina izan zuen esperientziak.

Egonaldian, gazte riftarrek beren hausnarketak elkarri azaltzeko aukera izan zuten, etorkizunari begira, beren hizkuntza-komunitatearentzat. Hego Euskal Herrira etorrita, Jon Sarasuak eta Lurdes Auzmendik euskara biziberritzeari buruzko hausnarketa bat partekatu zieten, eurentzat inspiragarri eta lagungarri izan zena, beren hizkuntza-komunitatearen ibilbideaz jabetzeko, euren egoeraren indarguneei eta ahulguneei buruz pentsatzeko, bai eta etorkizuneko ametsak formulatzeko ere. Egonaldiaren amaieran, Mustapha El Adak Rifeko adituarekin batera, tarifit hizkuntzaren ikuspegi komunaz eta etorkizuneko estrategiez hitz egin zuten, kolektiboki, eta gaur egun martxan jartzen ari diren proiektuen proposamenak egin zituzten.

BOLIVIA - KETXUAK

KETXUA BIZIBERRITZEKO ONLINE FORMAZIOA *hezkuntza eremutik*

Nazioarteko online jardunaldiak ere egin dira 2023an eta bertan ketxuera eta euskara ez diren beste hainbat hizkuntza ere presente izan dira: aimara, nasa yuwea edo Yucatango maia, esaterako.



Boliviako ketxua komunitatearekin bi proiektu bultzatu ditu Garabidek 2023an. Batetik, sei asteko prestakuntza egin dugu, urriaren 6tik azaroaren 24ra. Bestetik, nazioarteko jardunaldiak egin dira azaroaren 15, 16 eta 17an. Online izan dira bi egitasmoak. Formazioa bigarren urtez jarraian antolatu da, ketxua hizkuntza suspertzen ari diren eragileentzat, batez ere hezkuntzan ari diren agenteekin, tartean hedabideen esparruko aktibistak ere baziren arren. Hezkuntza mundutik eta hedabideen esparrutik eragile desberdinen aktibazio soziala bultzatzeko bideak ikusi

dira eta, pizgarriak izango diren politika instituzionalak nola landu, hizkuntza-plangintza egokia eginez.

Eta bestetik, azaroan, Abya Yalako hizkuntza komunitate gutxituen eta gure ketxuakideen artean 15, 16 eta 17an Nazioarteko Jardunaldia antolatzeko zortea izan genuen. Bertan ikusi ahal izan zen ketxuen zein euskaldunen aldetik ordezkaritza oso kualifikatua lortu dela bi herrietako hizkuntza politikei buruzko ahalik eta ikuspegi osoena

emateko. Beste hainbat hizkuntza ere presente izan ziren bertan. Hainbat gai jorratu zituzten: hezkuntza-sistema, komunikabideak, kultura-ekoizpena eta gizarte-aktibazioa, besteak beste.



BOLIVIA – GUARANIAK

Astebetetz, GUARANIAREN PLANA martxan jartzeko prestaketan

Garabideko ordezkaritza izan da apirilean Bolivian, Charagua-Iyambae udalerrri autonomoan, bertako Autonomia Indigenako udal hizkuntza planari hasierako bultzada emateko prestaketetan.

Aurreko bi urteetan hizkuntza plana egin eta sozializatu ostean, diagnostikoa egin eta aurten lehen pausu praktikoa ematen hasteko garaia iritsi da. Charagua-Iyambae autonomia indigenak prest dauka hizkuntza plana, bere udalerrian guarani hizkuntza bultzatzeko. Garabideko Joanes Igeregi lankidea izan zen bertan apirilean, lehen pausu praktikoa horiek emateko aholkularitza eskaintzen. Zazpi egunetan, plan horretan parte garrantzitsua

izango duten sei pertsona aritu ziren lanean, Garabideko kidearekin batera.

Hori martxan jartzen denean, Bolivian udal mailan martxan jartzen den lehendabiziko hizkuntza plana izango da guaraniena, eta beste udalerrri eta komunitate linguistiko batzuentzat aurrekari polita izan liteke. Boliviako guaraniek pausu handiak eman dituzte euren herriaren, lurraldearen eta autonomiaren alde, eta orain, euren identitatea, kultura eta hizkuntza al-

darrikatze lanean segi nahi dute. Charagua-Iyambae udalerrria Boliviako hego-ekialdean dago eta Boliviako lehendabiziko autonomia indigena izendatu zuten 2017an. Geroztik, beste udalerrri batzuk lortu dute autonomia indigena izatea, udalerrri guaraniak, horiek ere. Garabide sortu zenetik ari da Boliviako guaraniekin lanean eta besteak beste, kolaborazio horren emaitza da Charagua-Iyambae-ko hizkuntza plana.



3. Ierro estrategikoa

*AKTIBAZIO SOZIALA
EUSKAL HERRIAN*

Errenteria:

HIZKUNTZA ANIZTASUNA gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako

2023ko urriaren erdialdetik, Errenteriako eskoletako 230 ikasle dabilta hizkuntza aniztasunaren inguruko hezkuntza prozesua, bigarren urtez.



2023-2024 ikasturtean, pasaden abiaturiko hezkuntza proiektuari jarraitzen emango zaio, Errenteriako sei ikastetxeetan: Koldo Mitxelena BHI ikastetxea, Egiluze ikastetxea, Cristobal Gamón BHI ikastetxea, Orereta Ikastola, Bizarain BHI ikastetxea eta Telleri-Alde Ikastetxea.

“Hizkuntza aniztasuna gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako” izeneko proiektuaren helburua da maila globalean zein maila lokalean dagoen hizkuntza aniztasuna bistaratzea eta horrek duen garrantzia ulertzea, aniztasunaren eza gutza era kritikoa sustatuz eta arreta hizkuntza gutxietan jarritz. Era berean, euskararen egoera zaurgarriaz jabetzea eta gure hizkuntza hautuek izan ditzaketen inplikazioez hausnartzea da asmoa. Horretarako, Garabidek dinamizaturiko lau saioko prozesua planteatu da.

Aurreko ikasturteko ikuspegi globaletik maila lokalago eta pertsonalago batera egiten da jauzi: hizkuntza eta kulturaren galera eta berreskurapen prozesuak lantzen dira; eskola komunitateko hizkuntza aniztasunari erreparatzen zaio; pertsonen garapenean eta identitatearen eraikuntzan hizkuntza- eta kulturaren garrantzia aztertzen da; norberaren hizkuntzen hautuei buruz hausnartzen da.

MUNDUKO HIZKUNTZA GUTXITUAK protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan

Abian da munduko hizkuntza komunitateenganako begirada, eta, maila lokalean, ikastetxeetako, eta, oro har, Euskal gizarteko hizkuntza aniztasunarenganako begirada uztartzen dituen proiektua.

“Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan” proiektuaren helburu nagusiak, batetik, EAEko hiru hezkuntza-komunitateak formatzea eta aktibatzea da -Araiako Herri Eskola, Galdakaoko Eguzkibegi Ikastola eta Bilboko I.E.S Miguel de Unamuno B.H.I. hezkuntza zentroa- herri indigenei zein hizkuntza gutxituei buruzko kontzientzia kritikoa sustatuz giza eskubideen, generoaren eta ingurumenaren ikuspegitik.


Horretarako, Bestetik, EAEn bizi diren pertsona migratuen eta hizkuntza gutxitua duten hiztunen bizi-istorioak biltzea zein ikustaraztea, eta, pertsona migranteen zein elkarten arteko harreman sareak sustatzea bilatzen da, beren hizkuntza gutxituei eta euskarari

buruzko erronka komunak ikustarazteko.

Hainbat jarduera aurreikusten dira: eskolen hizkuntza aniztasuna ezagutzeko mapak egitea eta aniztasunarekiko ezagutza eta jarrerak detektatzea, Soziolinguistika Klusterrarekin batera; sentsibilizazio saioak aurrera eramatea Abya Yalatik etorritako hezkuntza profesional indigenen laguntzarekin; “Hizkuntza gutxituak Ama Lurra zaintzen” erakusketa aurkeztea; ikasleekin batera jardunaldi ludikoa diseinatzea; Euskal Herrian bizi diren eta hizkuntza gutxitua daukaten pertsonen kultura-eta hizkuntza- nortasuna ikustarazteko bizi-istorioak jasotzea Goienako komunikazio agentziarekin eta hizkuntza gutxituei buruzko Jardunaldia egitea.







Hizkuntza gutxiak globalizazio testuinguruan: ZERGATIK? ZERTARAKO?

Hizkuntza gutxituen egoerari buruz hausnartu da UPV/EHUren udako ikastaro batean

Uztailaren 17an eta 18an hizkuntza gutxituek globalizazioaren testuinguruan duten rola aztertu dugu. Globalizazioaren dinamika negatiboek eragindako beste esparru batzuek bezala, kultura eta hizkuntza minorizatuek ere ez diete ihes egin beren ondorioei.

Donostiako Miramar Jauregian egin den udako ikastaroari esker, zenbait galdera erantzun ahal izan dira, eta, gainera, ekarpenak egin zaizkio euskararen eta hizkuntza gu-

txituen diskurtso berriak sortzeko prozesuari.

Hitzaldi eta mahai-inguruetan euskararen eta munduko hizkuntza gutxituen egoeraren berri eman zaio euskal gizarteari. Horrela, hizkuntza gutxituei buruzko egungo pertzepzioen inguruko zenbait hizlari izan ditugu: amazighak, nasak, maiak, kitxuak eta euskaldunak, besteak beste. Bestalde, hizkuntzek testuinguru globalean behar dituzten kontakizun motei bu-

ruz ere hausnartu da, eta biziberritze-prozesuetan funtsezkoak diren gako-idea batzuk ezagutarazi dira.

Gainera, mundu globalizatu batean hizkuntzak babestearen garrantzia eta beharra nabarmendu da, eta hizkuntza gutxituen aldeko motibazio eta dinamika berriei buruzko gogoeta egin da. Azkenik, Garabide kide den eragileen sarea indartzeko aukera izan da.

Ikastaroko ikasleek modu presentzialean eta birtualean hartu dute parte.



2023ko

**BALANTZE
EKONOMIKOA**

EGITURA



BABESLEAK
Euskal Herriko 31 entitate



LAGUNTZAILEAK
Euskal Herriko 42 entitate sozial



BOLUNTARIOAK
30 boluntario



BAZKIDEAK
85 bazkide

BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

Diru laguntza lehiakorrak	307.870,51 €
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	406.963,72 €
GUZTIRA	714.834,23 €

GASTUAK

Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetzak proiektuak + on-line formazioak	82.511,82 €
Hegoko diplomaturak	352.205,67 €
Munduko hizkuntza gutxituak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan	68.360,60 €
GLEA hitzarmena_ikastaroa	180.000,00 €
Administrazioa	5.909,04 €
Koordinazioa	15.100,88 €
Zabalkundea	11.818,08 €
GUZTIRA	715.906,10 €

BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesten dute. Ekarpen ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2022eko bukaeran **31 erakunde babesle** zituen. Horrez gain zinez eskertu behar dugu **85 bazkideek** erakutsitako babesa.

Ekarpen ekonomikoa egitetik haratago, **30 boluntarioen eta 42 entitate laguntzailearen lana** aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzaren proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimensio eta ezaugarri anitzeko ekarpen guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzaren ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztioi.

BABESLEAK



ANDOAINGO UDALA



ANOETAKO UDALA



ARAMAIOKO UDALA ARABA



Aretxabaletako Udala



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Asparrrenou



Astigarragako Udala



Baztango Udala



Beasaingo Udala



Bergarako Udala



Berriatua Elizateko Udala



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN




DURANGO Udala • Ayuntamiento



Errenteriko udala



LAGUNTZAILEAK





goiena



garabide
erabari bide

2023

943 25 03 97

688 63 24 33

garabide@garabide.eus

www.garabide.eus